

**AKRONIMOA:** Neuropsikofarmakologia

**LOGOA:**



### IKERKETA TALDEAREN IZENA

**Neuropsikofarmakologia ikerketa taldea**

**Kontaktua Farmazia Fakultatean (Izena, posta elektronikoa):** Jorge E. Ortega  
([jorge.ortega@ehu.eus](mailto:jorge.ortega@ehu.eus))

**Web orrirako esteka:** <https://www.ehu.eus/es/web/neuropsicofarmacologia/aurkezpena>

**Zientziaren esparrua(k):** OSASUNA ZIENTZIA

**Hitz gakoak:**

**Eskizofrenia, Depresioa, postmortem giza garuna, buruko gaixotasunen animalia ereduak**

#### Deskribapena

**Neuropsikofarmakologia ikerlari taldea** Farmakologia Sailean aurkitzen da. Taldea "Centro de Investigación Biomédica en Red de Salud Mental CIBERSAM" ekimenaren barruan aurkitzen da. Gaixotasun mentalak aztertzen dituzte elkarlanean, ikuspuntu translazionala emanez bere lanari. Gainera, talde hau Biocruces Bizkaia Osasun Ikerketa Institutuaren zati da.

Ikerketa ildo nagusia neurohartzailleek gaixotasun afektibo nahiz psikotikoetan duten parte-hartzea aztertzea da, bereziki. Ikerlan honek bi azpi-arlo aztertzen ditu: Batetik, depresioa, eskizofrenia edo bestelako gaixotasun mentalik pairatu zuten gizabanakoen garunetan *postmortem* egindako azterketa neurokimikoak. Eta bestetik, gaixotasun mentalen animalia ereduak erabiltzea, bereziki *in vivo*, asaldura neurokimiko horiek farmako antidepresibo edo antipsikotikoak eman ostean jasaten dituzten aldaketak aztertzeko.

#### Ikerketa-lerroak

1. Depresioa, eskizofrenia, droga-menpekotasuna edo beste gaixotasun neuropsikiatrikoren bat pairatu duten pertsonen garunean, *postmortem*, neurotransmisoreentzako hartzaille eta hauen zelula-barneko seinaleztapenaren azterketa molekular eta funtzionala.
2. Medikamentu antidepresiboek eta antipsikotikoek epe luzera duten eragin mekaniskoaren *in vivo* ikerketa.
3. Eragin antidepresiboa indartzeko eta bizkortzeko estrategia berrien bilaketa, animalia-ereduetan oinarrituta.
4. Gaixotasun neuropsikiatrikoen animalia eredu transgenikoen azterketa molekular, biokimiko eta neuro-garapenaren portaerazkoak.

5. Sintomatologia psikotiko, negatibo eta kognitiboaren oinarri biologikoak.
6. Eskizofreniarekin erlazionaturiko eskasia kognitiboaren tratamendua.
7. Gaixotasun mentaletan neuroinflamazioak duen eginkizuna. Gaixotasun inflamaorioetan agertzen den sintomatologiaren mekanismoak.

#### Ekipamendua

- Gaixotasun psikiatriko eta droga-menpekotasun arazoetarako garun-laginen bilduma.
- Neurotransmisoreentzako hartzaileak *in vitro* ikertzeko teknika biokimiko eta funtzionalak (estekatzaileen finkapena, SPA, seinaleztapen-erantzunak, etab).
- Proteinak kuantifikatzeko teknikak (western-blot, inmunoistokimika, ELISA, etab) eta metabolitoak.
- ARNm-aren expresioa eta osotasunaren neurketa, RealTime-PCR kuantitatiboaren bitartez.
- Saguan eta arratoian burututako ebaketa estereotaxikoa.
- Esna dagoen animalaren garunean egindako mikrodialisia.
- Detekzio elektrokimikoa duen HPLC-a. Monoaminen eta aminoazidoen analisisa.
- Gizakian egindako mikrodialisia testuinguru klinikoa.
- Arratoian burututako iskemia eta erreperfusio teknikak.
- Gaixotasun neuropsikiatrikoak eta psikofarmakoek eragindako erantzunak ikertzeko portaerazko animal-ereduak: aktibitate lokomotorea, antsietatea, gabezia kognitiboa, elkarekintza soziala, estresa, PPI, etab.
- Gaixoen usaimen-neuroepiteliotik ateratako zelulen eta bestelako kultiboak.

Ikerketa taldekideak		Saila	Zentrua	Sail Atala
IP	Jose Javier Meana	Farmakologia	Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea	
Ikertzailea	Luis Felipe Callado	Farmakologia	Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea	
Ikertzailea	Ane Miren Gabilondo	Farmakologia	Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea	
Ikertzailea	Leyre Urigüen	Farmakologia	Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea	
Ikertzailea	Rebeca Díez Alarcia	Farmakologia	Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea	
Ikertzailea	Alfredo Ramos Miguel	Farmakologia	Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea	
Ikertzailea	Jorge E. Ortega	Farmakologia	Farmazia Fakultatea	
Ikertzailea	Igor Horrillo	Farmakologia	Farmazia Fakultatea	



Universidad del País Vasco  
Euskal Herriko Unibertsitatea

FARMAZIA  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE FARMACIA

<b>Ikertzailea</b>	<b>Amaia M. Erdozain</b>	<b>Farmakologia</b>	<b>Farmazia Fakultatea</b>	
<b>Ikertzailea</b>	<b>Guadalupe Ribero</b>	<b>Farmakologia</b>	<b>Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea</b>	

(gehitu taldekide adina lerro)

**Ikerketa taldearen argazkia** (taulan txertatu edo fitxarekin batera posta elektronikoz bidali)

